


zer da industria nuklearra?

Industria nuklearrak energia elektrikoa sortzen du zentral nuklearretan.

Espanian, gaur egun, zentral nuklear hauek daude funtzionamenduan:



Santa M^a de Garoña (Burgosen), Almaraz (Caceresen), Trillo (Guadalajaran), Vandellós eta Ascó (Tarragonan) eta Cofrentes (Valentzian). Beste alde batetik, geldialdi-fasean dagoen beste erreaktore nuklear bat dago, hain zuzen ere, Jose Cabrera (Guadalajaran), geroago itxi eta desegin ahal izateko.

HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA

PEN



DIRECCIÓN GENERAL
DE PROTECCIÓN CIVIL
Y EMERGENCIAS

www.proteccioncivil.org

“ARRISKU
NUKLEARRARI
BURUZKO OINARRIZKO
ERANTZUNAK”

Dirección General de Protección Civil y Emergencias. N.I.P.O.: 126-08-051-2. Depósito Legal: M-42319-2008



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DEL INTERIOR

SECRETARÍA GENERAL
TÉCNICA



DIRECCIÓN GENERAL
DE PROTECCIÓN CIVIL
Y EMERGENCIAS

larrialdi nuklearrerako egitamua

PEN

HERRITARRENTZAKO
INFORMAZIOA

“ARRISKU
NUKLEARRARI
BURUZKO OINARRIZKO
ERANTZUNAK”

zer da arrisku nuklearra?

Zentral nuklearren funtzionamenduan segurtasuna bermatzeko lege-araudi zorrotza bada ere, ezin da erabat alboratu istripuren bat gerta daitekeela, eta kasurik txarrenean ere, gai erradioaktiboak kanpoaldera atera daitezkeela. Orduan, gai erradioaktibo horietatik eratorritako erradiazioaren ondorioz, biztanleriarentzako arriskuak etor litezke, bai beraiengan zuzenean eragina egiteagatik, bai sustantzia horiek arnasan hartzeagatik edo bai kutsatuta da goen janaria edota ura hartzeagatik. Guzti honek pertsonen osasunean eragina izan lezake.

zer da babes zibila?

Babes Zibila zerbitzu publiko bat da eta arrisku larrian dauden pertsonak eta ondasunak fisikoki babestea da bere zeregin nagusia: adibidez, uholdeak, basoetako suteak, lurrikarak, istripu industrial larrian gertatzen direnean. Horregatik, Larrialdietarako Planak egiten ditu, katastrofea gertatuz gero edo larrialdi egoeran sortzen diren ondorioei aurrea hartzeko eta arriskuak murrizteko.

zer da nuklear larrialdietarako plangintza?

Balizko larrialdi nuklear baten aurrean babes zibilaren plangintzak, eraginkortasunez eta ahalik eta lasterren, biztanleek babesteko neurriak burutzea du helburu, eta, halaber, beste larrialdi jarduera batzuk egitea zentral nuklear batean istripu bat gertatuz gero. Horrela, kasu horietan instalazio horien inguruan bizi den biztanleriaren osasunean eraginik izan lezaketen arriskuak eragotzi edo gutxitu nahi da.

zer egin behar da larrialdi nuklearra gertatuz gero?

Larrialdi nuklearra gertatuz gero, agintariak horren berri emango diete biztanleei eta honako oinarrizko gomendio hauek jarraitzea komenigarria da:

1. Babes neurri egokienak hartzeko arduradunak diren agintarien eta larrialdietarako zerbitzuen argibideei jaramon egin, egoera aldatzen den heinean zer egin eta zergatik adieraziko dutelako.

2. Irratiek larrialdiari buruz emandako informazio zehatza arretaz entzun.

3. Norberaren etxebizitzaren barruan edo leku itxi batean geratu, egokia izango balitz, agintari arduradunek ebakuazio ordenatua aginduko dutelako.

4. Konfinamendu-egoeran, ateak, leihoak edo kanpora doan edozein huts itxi. Zirrikituak zapi hezeekin estali eta haizegailu, aire girotuko aparatuak, galdarak eta bestelako aire-harguneak itzali.

5. Ahal bada, animaliak esparru itxietara eramán.

6. Lehentasunez, edari eta janari ontziratuak kontsumitu.

